


Euskal Autonomia Erkidegoko eraikuntzaren kostuak %0,3 igo ziren 2005eko ekainean

Azken hamabi hilabeteetan (2004ko ekainetik 2005eko ekainera) eraikuntzaren kostuak %5,5 igo dira.

EAEEn eraikuntzako kostuen indizeak %0,3ko igoera izan du 2005eko ekainean, aurreko hilabetearekin erkatuta. Horrela, eta EUSTATen datuen arabera, hilabete horretako urte arteko tasa %5,5eraino igo da.

Urte arteko aldakuntza-tasak, 1997-2005



(*) Hazkundea ekaineko urte artekoa da

Iturria: EUSTAT

2005eko ekainean lanekuaren kostuak ez du inolako aldaketarik izan (%0,0), aitzitik lehengaien kostuek %0,4ko igoera izan dute.

Eraikuntzaren eta Obra Zibilaren azpisektoreek antzeko bilakaera izan dute. Eraikuntzak %0,4ko igoera izan du aurreko hilabetearekiko, eta Obra Zibileraiko lehengaien kostuek %0,7koa. Bi azpisektore horien urte arteko bilakaeran, argi ikusten da are ibilbide antzekoagoak dituztela: Eraikuntzako lehengaien kostuak %5,9 igo dira, eta Obra Zibilekoak, %5,6.

Ekainean, prezioen hazkunde handienak, besteak beste, ondoko hauetan kontsumitutako lehengaietan eman da: *petrolioaren eratorriak* (%9,3), *asfaltozko produktuak* (%6,7), *burdina eta altzairua* (%1,5), *erauzketa-agregakinak* (%0,7) eta *lur egosiak* (%0,5). Ondoko hauetako lehengaien prezioak, berriz, gutxitu egin dira,

besteak beste: *karea, igeltsua eta eskaiola* (%-3,0), *energia elektrikoa* (%-1,7), *metalezko tutueriak* (%-0,7) eta *egiturak eta galdaragintza* (%-0,5).

Sektorean kontsumitutako lehengaien prezioen artean, azken hamabi hilabeteetan inflazio-tasa handienak izan dituztenak hauexek dira: *asfaltozko produktuak* (%42,2), *petrolioaren eratorriak* (%28,5), *burdina eta altzairua* (%14,8), *harri landua* (%11,8) eta *metalezko tutueriak* (%11,1). Bestetik, ondoko hauen lehengaien urte arteko prezioak murriztu egin dira: *beira* (%-2,5), *bulegoko materiala* (%-1,8) eta *metalezko egiturak eta galdaragintza* (%-1,4).

ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. EUSKAL AE / DATU AURRERAPENA		2005EKO EKAINA		
GOIBURUAK	INDIZEA Oin., 2000= 100	GEHIKUNTZAREN %		
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean
KOSTUA GUZTIRA	119,7	0,3	5,5	3,9
ERAIKINAK	119,6	0,3	5,5	3,8
OBRA ZIBILA	120,0	0,4	5,2	4,0
LEHENGAIEN KOSTUA	116,9	0,4	5,8	3,5
ERAIKINAK	117,0	0,4	5,9	3,5
OBRA ZIBILA	116,6	0,7	5,6	3,7
LAN-ESKUAREN KOSTUA	126,1	0,0	4,6	4,6

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tl.:+34-945-01 75 00 Fax:+34-945-01 75 01 E-mail: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tlf:+34-945-01 75 06 Fax:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskaral/indice.asp